

## **Ezker-eskuina Espainian**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1995-01-04: 2.

Historiak irakasten digu gertaerak iraganetik gaurkotasunera nolatan ekoizten dizkigun, eta esperientzia honetatik proiektu genezake etorkizuna. Ez da matematikoa, baina bai logikoa. Gaur Espainiako Estatuaren barruan bizi garen une historiko honetatik behar genezake atzerantz: Espainiako lehen Errepublika, herriak berez emandako gobernu, oso laburra eta ahula izan zen (1873-74). Bigarren Errepublika 1931n hauteskundeak zirela medio irabazi zuen herriak, eta Alfonso XIII. erregeak, oraingoaren aitona, amor eman zuen (lehen aldiz Espainiako historian) eta berez erbesteratu zen; bi urte gero, 1933an, eskubiak irabazten ditu hauteskundeak eta Gil Roblesen CEDAk ezartzen du "bienio beltza" deiturikoa; PSOEek legez, demokratikoki, onartu eta botoen erabaki berria itxaron beharrean, altxamendu bat matxinatzen du 1934ko urrian, eta odol asko isuri eta espetxealdi luzeak jasan behar izan zituen herriak 1936ko otsailean berriz demokratikoki irabazi zuen arte. hemen gutxienez bi ikasbide guretzat: 1) Ezkerreko PSOEek ez zuen demokratikoki jokatu, eta eskuina legez jarri zen agintzen, gaur gerta daitezkeen legez. 2) Eskuinak legea bere alde zuela, armada ere betiko berekin izan zuen gainera; gaur Europa barruan tradizio hau berritzea zailago izango dela pentsa izan dut; inoiz ez, zeren eta Jugoslavian gertatua ikusita, Txetxenian Errusia egiten ari denaren exenpluaren arabera, beharrezko iruditzen zait gaurko PSOEn ustelkeriek noraino eramán gaitzakeen ardura sortzea!